

Kide agurgarria:

Gaur, ilusioz eta konbentzimenduz zuetako bakoitzarengana zuzendu nahi dut, elkarrekin dagokigun espazioa berreskura dezakegula sinetsita. Ohore eta ardura handia da Podemos Euskadiko koordinatzaile nagusiaren kargua hartzea. Onena etortzeke dagoelako uste sendoarekin egiten dut, eta gure proiektu politikoaren bihotza eta indarra zaretenoi sentitzen diedan errespetu sakonarekin: gure militantziari.

Badakigu azken urteak ez direla errazak izan. Erronka eta eraso etengabeen garaiak igaro ditugu, baina ezinezkoa dena errealitate bihur dezakegula ere erakutsi dugu. Gauzak ezin zirela aldatu esan zigutenean, oker zeudela erakutsi genien. Gaur egun milioika pertsonaren egunerokotasunaren parte diren eskubide sozial, laboral eta feministetan aurrerapen historikoak lortu ditugu.

Hau ez zen posible izango zuek gabe. Izan ere, Podemos ez da edozein alderdi, pertsona konprometituen mugimendua da, amore ematen ez duten militanteena, egunero beren auzoetatik, lantokietatik eta biziguneetatik borroka egiten dutenena, Euskadi bidezkoagoa eraikitzeko.

Gaur, etapa berri hau hastean, elkarrekin eraikitzen jarraitzeko konpromisoa hartu nahi dut. Orain, inoiz baino gehiago, politika egitea beharrezkoa da: kaleetan eta erakundeetan egotea, entzutea eta ikastea, gure proposamenetan ausartak izatea eta gure printzipioetan tinko jarraitzea. Bide berri hau elkarrekin egingo dugu, Podemosen sorrera bultzatu zuen ilusio berarekin eta gure errealitatea eraldatzeko determinazioarekin.

Hasieratik gurekin zaudetenoi, bidean gehitu zaretenoi eta etorkizunean batuko zaretenoi, eskerrik asko zuen dedikazioagatik, zuen ausardiagatik, gauzak zailak izan direnean ere atzera pausorik ez emateagatik. Mugimendu kolektiboa gara, eta hori da gure indarrik handiena.

Elkarrekin ibiltzera gonbidatzen zaituztet, beldurrak geldi ez gaitzan. Borroka bakoitzean, urrats bakoitzean, eraikiko dugun etorkizuna dago. Elkar hartuta lan eginez, Euskadiko txoko guztietara itxaropena eramaten jarrai dezakegulako.

Bihotzez, eskerrik asko proiektu politiko honen parte izateagatik.

Esker onez eta estimu handiz,

Richar Vaquero

Podemos Euskadiko Koordinatzaile Orokorra